**GEHIGARRI BEREZIA** · SAGARDOTEGIEN GIDA · **KULTURA** JUAN MARIA URIARTE GOTZAINA ETA ERMITAKO MARGO BERRIAK IZAN ZIREN PROTAGONISTAK SAN BIZENTE EGUNEAN · **GEHIGARRIA** KILIBARREN


# BARREN
ASTEKARIA

ELGOIBARKO ASTEKARIA · 2002ko urtarrilaren 25/X. urtea/390. zkia




# San Bizente Eguna ospatu dute San Roken

# GREMIOEN GIDA

Gremioen gida honetan azaldu nahi baduzu, deitu A3 74 37 04

pia

ob. swir

## AROZTEGIAK ITUItGINTZA

**BIENA**
Neurrira egmaako iana
Ermuaranbide, 16
943 74 31 16

**GARCIA**
Aluminioa eta PVCa
P. Muguruza, 30
721 943 74 32 38

**LODOSO**
Leihoak
Ermuaranbide, 16
z' 943 74 34 90

**SORALUZE**
Leihoak-Armairu enpotra-tuak
Santa Ana, 8
'2'-r 943 74 36 34

**ULAZIA**
Aroztegia eta enbalajeak
Santa Klara, 10
s' 943 74 05 47

**ZABALA**
Etxeko erreformak-enbalajeak
Deba kalea, 16
Tr 943 74 03 96

**ANGEL**
бania m̃na, ō
943 74 17 61
689 04 92 06

**ONGI**
Urasandi, 8
15 943 74 10 82

**PAGOAGA**
San Antolin, 13
ra' 943 74 02 79

**TELLABIDE**
Azpilgoeta, 19 MENDARO
z' 943 75 50 62
7ɪ 607 75 50 62

**ZALDUA**
Urasandi, 26
943 74 05 30

**ZUBIZARRETA**
Ubitarte, 5
'a 943 74 07 89
72 608 14 30 40

## AISP- SOLAMEN UAK

**GLAS CONTROL S.L.**
Inpermeabilizazioak
Olaso 27, 47. pabiloia
Ir 943 74 30 94

@5E

## 11111>> -Plo_muziE

**ETXEKIT**
Antonio Arrillaga, zig
s' 943 74 43 47

## PAVE

**IPINTZA**
Foruen enparantza, 4
'rz 943 74 04 40
607 74 04 40

**BIOK DEKORAZIOA**
Santa Klara, 11 behea
w 943 74 15 52
606 43 11 19-20

71E— j© 15/ ı

**JESUS Mg GABILONDO**
Ubitarte, 4-5 esk.
7:1' 670 41 20 73

## ELEKTRIZITATEA

ÌVIOrKalKO, I
z' 943 74 12 80

**AZPELETA**
San Frantzisko, 51
17 943 74 12 38 -

**BETI ARGI**
Errosario, 6
943 74 16 44

**JOSEBA**
Pedro Muguruza, 29
943 74 09 02
u' 659 93 49 64

**URZELAI**
Santa Ana, 12-14
z' 943 74 13 76

## IGELTSERITZA

**ANTONIO MARKEZ**
Urasandi, 24
943 74 34 18

**ASKETA**
Osio, 7 DEBA
u* 629 34 43 89

**JOSE LUIS MENDEZ**
Urasandi, 24
Tr 943 74 29 87
z' 679 19 77 47

## 12:210ME

**IRANE 2000**
Olaso, 17
7 943 74 30 95



## Suak daramana

18 urte inguru nituen. Deban nintzen, lagunarteko bazkari bat geneukan. Halako batean, norbaitek, sudur-fin batek erre usaina zegoela esan zuen eta berehala oihuka sartu zen herritar bat, "Sua! Sua!". Konturatu orduko kalean ginen, ke artean, errautsaren euripean, laino beltz itsugarri batek besarkatuak, kaiolatuak, ihesik gabe. Su-garrek mendia jan eta herriaren gerria nola kiribiltzen zuen ikusten genuen gure begiekin. Errepideak itxita zeuden. Argindarra moztu egin zen. Udazken lehor hartan suak mendekua egin zion auskalo zein gaizkileri.

Goma herrian, Congon, sumendiak orro egin du, "hildakoek haserrea erakutsi dute". Eztarriak oka egin du eta mingain gupidagabeak dena irentsi du, suzko errekak ireki ditu. Lurra orbaindua dago, lehorra, mindua. Merkrominaz senda ezin daitekeen zauria ireki zaio alderik alde herri oso bati. Etorkizuna beltza aurreikusten da.

11

O

Lurramendeku egarri da. Eztul eginez gizakia suntsi dezakeela erakutsi du berriz. Baina, era berean, berreraikitzeko aukera ematen du, errautsetatik ernatu eta berpizten den Fenix hegaztia bezala.

O

Eta gu, bitartean, bizitzak eskuetatik alde egiten digula konturatu eta, halere, zain. Ikusle arruntak gara, lekukoak.

N

Besteek egiten dituzten, gertatzen zaizkien barrabaskeriak salatzen ditugu. Gure lurrak ere noizbait eztanda egin eta mingaina dantzan jarri dezakeela konturatu gabe.

**"Eta gu, bitartean, bizitzak eskuetatik alde egiten digula konturatu eta, halere, zain"**

Jasone Osoro



## Trafikoko arau berriak belozidadearen munduan

Trafikoko arau berriak zein diren entzun berri dut eta indiferentziarekin hartu ditut. Bueno, indiferentziarekin edo...: Arauak arau dira eta ezin dira denen gusturako ipini. Arau hauen alderik txarrena multak dira. Multak eta gidatzeko baimena kentzeko arriskua. Baimena kentzea arazo larria da askorentzat baina, hau gabe ere moldatu gintezke gaur egungo gizartean. Urtebeterako baimena kenduko balidate, adibidez, onartu egin beharko nuke. Zertarako daude bestela zerbitzu publikoak, edo lagunak?

Arau berrien barruan mota desberdinetako legeak daude: Larriena, agian, mozkortuta edo drogen menpean gidatzea da. Multak baino gehiago, kontzientziazioa behar dugu. Ez lirateke gaizki etorriko gure gizartean jokabide onaren zenbait ikastaro. Niri ez didate isun gogorrik inoiz ipini baina ipini eta ordaindu ondoren ere, ez dut uste berriro gauza bera ez egiteko balio dutenik. Hau da, gidarien kontzientzia gauza batzuetan aldatuko bada ere, orokorrean egoera ez dela aldatuko, alegia. Istripuak ere ez dira gutxituko. Istripuak ez daude arauen menpean.

**"Harneta kentzea ala multa ordaintzea aukeratu beharko banu, nahiago nuke ordaintzea"**

Karneta kentzea ala ordaintzea aukeratu beharko banu, nahiago nuke ordaintzea. Isunak ordaintzeak rnin egiten du, baina denbora gutxiagoan. Urtebete kametik gabe lagatzea luzea da, ezta?

**Jokin Martinez.**

Kexak ........ 5
motz motz ........ 6
gehigarria ........ 13
kiRolAk ........ 22
aGencla ........ 28

## Urruzunoren begi ezkutua

# Sekretuak eta kontuak



Askotan denbora geldiaraztea nuke gogoko; erlojura begiratzean arestian markatzen zuen ordu bertsuan geldirik ikustea, orratzek aurrera egiten ez dutela frogatzea. Askori otu zaigun zerbait da hori, ez dit inork esan, baina nik neuk badakit, ondotxo jakin ere. Badira sekretu batzuk lau haizetara oihukatzen dutenak euren funtsa, denok dakizkigun zerak dira: ageriko sekretuak, berez ezkutukoak beharko Iuketen arren. Denoi gustatzen zaigu sekretuak gordetzea, eta batez ere, besteon sekretuak ezagutzea, benetan ezagutzen ditugula pentsatzera heltzen garelarik sarritan. Sekretuak dira gehien hedatzen diren zurrumurruen iturri, bakoitzaren memorian eta memoria kolektiboan luzaroen irauten dutenak, ezinegona sortzen dutenak barnean gorderik daramatzagun bitartean, eskuartean piztutako leherkari bat bagenu lez. Askatzen dugunean eztanda egiten du eta salbu sentitzen gara berriz ere, baina norbaiti sekreturen bat kontatzen diogunean gezurretan ari gara. Sekretuak ez dira kontatzen, kontatzen direnak ez dira sekretuak; kontatzen direnak kontuak dira,

**Unai Villena**

### GIPUZKOAKO AURREKONTUAK 2002

Atzerapen handiarekin datoz aurtengo aurrekontuak. Aurkeztutako epea aspalditxo pasata, aurten dentorrezkoa du Foru Aldundiak aurrekontuak aurkeztea eta aurrera ateratzea. PNV-EA koalizioak 19 batzarkide besterik ez dituenez, derrigorrez behar du bidaia-laguna. Elkarrizketarako omen duten borondate zabalaren berri ematen digute eguna joan eta eguna etorri. Elkarrizketa, ordea, PP eta PSOErekin soilik. Batasunarekin ez, nahiz eta hau izan Gipuzkoako lehen indarra (14 batzarkide). "Horiekin ezer ez", Sudupek dixit. PSOEren bila doaz PNV eta EA, Autodeterminazio eskubidea espreski ukatzen dutenekin nahiago gurekin baino.

Egia esan, jarrera hauek ez dira berriak: 1998an irekitako prozesuan halabeharrezko PNV-EA koalizioa sortu zuten, EHri alkatetzak eta Foru Aldundia kentzeko. Denboraren jardunak argi utzi digu Gipuzkoako hainbat buruzagiren helburua ez zela Euskal Herriaren eskubideen errespetuzko egoera berri baten bakea lortzea, bakoitzak bere besaulkiari eusteko ahalegin guztiak egitea baizik. Horretarako behar du PNVk PSOE. Horrela, inolako enbarazurik gabe Udalbiltzarako dirua albo batera uzteko prest azaldu da PNV, horren truke PSOE irabazteko.

Azpimarratu nahi dugu 2003an bukatzen dela A8 autopistaren kontzesioari eman zitzaion epea. Erabakitzeko ordua da eta Batasunak honako proposamenak jarri nahi ditu mahai gainean:

- Autopistaren kudeaketa publikoen gain egotea.
- Euskal herritarrok soberan ordaindu dugu azpiegitura hau.
- Ibilbide Iuzeetarako funtzioa betetzeaz gain, ibilbide ertain eta motzetarako ere baliagarria izan dadin eskatuko dugu.

P.M
NAN 15.357.275

ASTEKARIA

BaRRen

Nafarroa enparantza, 2
20870 ELGOIBAR
o 943 74 41 12
Publizitatea:
o 943 74 37 04
Faxa: 943 74 37 04
E-maila:
barrentltopagunea.com
Helbide inforrnatikoa:
vvww.topagunea.comfbarren
ARGRARATZAREA
Elgo banto Izurra

LAGUNTZAREA ElgOibark0 Udala ZUZENOMEA Eli Aizpuru KAzaminAK Irali Agirreazaldegi, Asier Orbea PueurrATEA Amaia Erldzia MAKERMAILEA Bea Ansola ADMNISTRAZIOA Amaia Rorhigez GEREMEZIA Jon Peli Uriguen KOLASORATZAILEAK Ainhoa Lodoso, Nestor Fue ntes, Pello Mendizabal, Juan M. Eluslondo, Alberro Ansuategi, Edurne BIlbao, Gotzon Anieta, Jon Peli Uriguen. Lorea Perez de Albeniz, Jokin Martinez, Olga Unz11a, Montse Arregi, Juanito Gorostiza, Jon Gunutxaga, Jon Eugi, Ainhoa Andonegi, Kokoe KE eta Unuzuno L.T.. A2M.EKO ESAERA ZAHARRA Golzon Garaleren liburulik INPRIBMTEGIA Gertu Koop. E. TIRAOA 4.025 ale LEGE oonornuA 55.1.038/92 ISSN 1139-1855

ELGOBARKO IZARRA
rucrux kltAIIZA

*Elgoibarko Udalak, Ensko Jautlaritzako Kultura Sailak eta Font Aldundiak diruz lagundutako aldizkaria.*

kutxa
mkm

2-DANOBAT
MAC,,,,SkERRALIEN"

5>GOITI
G0.11P0 DANOISKI

4,■§ATARTA

## 9111111111

• Herritar batek, **astebukaera batzuetan Elgoibar goardiako farmaziarik gabe** geratzen dela-eta kexu da. "Guztietatik ezin al daiteke beti bateron bat goardian egon?", galdetu digu.

BARRENetik, Errosario kaleko Etxeberria farmazian, goardien berri eskatu dugu eta honako hau esan digute:

**"Farmazietako turnoak Eusko Jaurlaritzak ipintzen ditu** komarka guztietan. Beraz, herriko botikek arauen arabera funtzionatzen dugu. Hala ere, Elgoibar izan da, sistema honetan sartu den azken herrietakoa. Lehen, domeketan zabaldu beharrik ez izan arren, botika bat zabalik egoten baitzen goizetan".

## KEXAK

• **Errosario kaleko 33ko bizilagun batek** deitu digu honako kexa hau azaltzeko: "Portal **aurrean kotxeak aparkatzen dituzte** eta askotan, arazoak izaten ditugu etxeko portaletik ateratzeko ere. Ni bezala, mugitzeko arazoak izanez gero, gainera, are eta gehiago".



Atal honetan kexa, txalo edo galdera argitaratzeko bidali posta elektronikoa, izena eta zure telefono zenbakia zehaztuz, barren@topagunea.com, helbidera.



• Herritar batek deitu digu **Udala txalotu nahi** duela esateko: " Egondo enpresaren aurrean, Olasoko poligonoan, **STOP seinalea** ipintzeko eskatu genion Udalari, eta ipini ere **ipini** dute. Beharrezkoa zela pentsatzen dut eta Udala txalotu nahi dut kontu hau gogoan hartzeagatik".

• **Afizionatu batek Mugerza Krosaren antolatzaileak txalotu nahi ditu: "Oso** antotakuntza ona eon zan. Matematikua izan zan, gainera; 9 karrera ein zian eta danak atzerapenik gabe. Programan azaltzen zan bezela juan zan dana, 10 minuturo karrera bat egin zan".



## AULIA (Legorreta)

- **SAGARDOTEGI SASOIA:** Santa Luziatik maiatzaren bukaerara arte.
- **JATEKOA:** Sagardotegiko menua.
- **LEKUA:** 110 lagun.




**Aulia Enea baserria a 943 80 60 66**

## 111, EIZMEND1 (Hemani) gio

- **NAGUSIA:** Maixa Eizmendi.
- **SAGARDOTEGI SASOIA:** Urtarriletik apirilaren bukaerara arte.
- **JATEKOA:** Sagardotegiko menua edo norberak eramandakoa.
- **LEKUA:** 160 lagun.




**Osinaga auzoa zr 943 55 64 05**

## GURUTZETA (Astigarraga)

- **NAGUSIA:** Gurutzeta
- a **SAGARDOTEGI SASOIA:** Txotx garaia.
- z **JATEKOA:** Sagardotegiko menua.
- **LEKUA:** 110 lagun zutik




**Oialume bidea, 59 943 55 22 42**

## ISASTEG1 (Tolasa)

- **NAGUS1A:** Migel Mari Lasa Arostegi.
- **SAGARDOTEGI SAS 0 IA:** Urtarriletik maiatzera arte.
- **LEKUA:** 200 lagun.



**Aldaba-Txiki auzoa, 15 943 65 29 64**

## KORTA (Gabiria)011111

- **NAGUSIA:** Inazio Korta.
- **SAGARDOTEGI SASOIA:** Urte guztia.
- 11 **JATEKOA:** Sagardotegiko menua eta mariskoa.
- **LEKUA: 110 lagun.**



**Korta sagardotegia 943 88 71 86**

## Li 1 ( T

- **NAGUSIA:** Ixabel Santa Kruz.
- **SAGARDOTEGI SASOIA:** Urtarriletik apirilaren bukaerara arte. Astelehenetan eta rgande gauetan itxita.
- **JATEKOA:** Sagardotegiko menua edo norberak eramandakoa.
- **LEKUA:** 120 lagun.



**Larregain etxea, Ereñozu a 943 55 58 46**

## GOIKO-LASTOLA (Hernani)

- **NAGUSIA:** Lazaro Etxabe Zerain.
- **SAGARDOTEGI SASOIA:** Urtarriletik apirilaren bukaerara arte.
- **JATEKOA:** Sagardotegiko menua edo norberak eramandakoa.
- **LEKUA:** 80 lagun.



Ereñozu Auzoa 943 55 32 72

## IZETA (Aia) .11111

- **NAGUSIA:** Manuel Iruretagoiena
- **SAGARDOTEGI SASOIA:** Urte osoan irekita, sagardotegia eta jatetxea.
- **JATEKOA:** Sagardotegiko menua.
- **LEKUA:** 200 lagunentzako.

TOLAREDUN sagardotegia



Izeta baserria (Urdaneta bidea) ☎ 943 13 16 93

## OTATZA (Zerain)

- **NAGUSIA:** Ramoni Lopetegi.
- **SAGARDOTEGI SASOIA:** Urtarriletik apirilera arte. Asteazkenetan itxita. Udan, erretegia.
- **JATEKOA:** Sagardotegiko menua edo norberak eramandakoa.
- **LEKUA:** 140 lagun.

TOLAREDUN sagardotegia



Otatza baserria 943 8D 17 57

## NOI A EGITEN DA SAGARDOA?

Sagardogileak udazken aldera hasten dira lanean, orduan baita sagarra biltzeko garaia. Sagarrak Euskal Herrikoak, Galiziakoak eta Frantziako iparraldekoak izan ohi dira.

Bildu ondoren, sagarrak birringailutik pasatzen dira eta zukua ateratzen zaie. Ondoren beratzen jartzen dira, 12 bat orduz, eta prentsatu eta gero, biltegietara joaten da. Biltegietan egiten da fermentazioa. Hala ere, tenperaturak agintzen du sagardoaren emaitzan. Tenperatura egokia 10 gradukoa da.

Prozesu guztia amaitu ondoren, kupeletan sartzen da sagardoa. Gaur egungo kupelak ordea, ez dira lehengoak bezalakoak. Sagardotegi berri gehienetan metalezko ontzi handitan sartzen da sagardoa,



lehengo kupelen lana ordezkatuz. Gainera, egindako ikerketek diotenez, askoz hobeto gordetzen da sagardoa metalezko ontzietan, eta are gehiago, metalezko ontzietan sagardoa denbora luzeagoan gorde daiteke, beroak ez baitu sagardoa moteltzen.

## SAGARDOTEGIETAKO Menua

***Normalean, sagardotegietako menua berdina izaten da toki gehienetan.***

*Bakailao frijitua*

***

*Bakailao tortilla*

***

*Egur ikatzean egindako txtdeta lodi- lodi eta odoltsua*

*Sagardotegi askotan honetaz gain, txitxurroa ere eskaintzen dute duela urte askotako ohiturari jarraituz,*

***

*Intxaurrak eta gazta menbrilloarekin.*

***Hau guztia urteko sagar o gozoaz bustita jaten da, noski!!!!!!***

## SARASOLA (Astigarraga)

- **NAGUSIA:** Inaxio Sarasola
- **SAGARDOTEGI SASOIA:** Urtarriletik apirilaren bukaera arte.
- **JATEKOA:** Sagardotegiko menua.
- **LEKUA:** 200 lagun, eserita nahiz zutik.



TOLAREDUN sagardotegia

Behallea Auzoa 943 69 02 83

ASTE HONETAN JARRI DIRA MARTXAN TRAFIKOKO ARAU BERRIAK, LEHENGOAK BAINO ASKOZ ERE GOGORRAGOAK

# ARAUAK GOGORTZEAK, GIDARIEN JARRERA ALDATUKO AL DUk1



## MARIA BOYER

**30 urte, dendaria**

Bai, bestela multaz gainezka egongo ginateke. Karneta kentzekotan, alkoholemiarengatik kenduko nioke. Hala ere, pare bat tragorekin positibo ematen du. Tasaren oso gainetik daudenei bakarrik jarriko nieke zigorra.



## JAVIER IGARZABAL

**49 urte, sendagilea**

Hasi berria denez, oraindik jendeak ez die arau berriei kasurik egiten. Baina panorama ikusita, beharrezkoak dira. Gidatzeak beldurra ematen du, jendea sekulako abiaduran ibiltzen baita.



## SANTOS MUGERZA

**80 urte, jubilatua**

Gitxi aldatuko dabala pentsatzen dot. Eranda, legia errespetau gabe dabizeneri karneta kendu bihar jakue; edo bestela, multa fuertia ipini eta kobrau, ia konturatzen dian zer pasatzen dan.



## CAROLINA IGLESIAS

**30 urte, elektronikoa**

Baietz uste dut, kontu handiagoz ibiliko gara harrapa ez gaitzaten. Jarrerarik grabeenak, mozkortuta gidatzea eta autobidean kontrako norabidean joatea iruditzen zaizkit.



## JOSU GOIKOETHEA

**45 urte, mekanikoa**

Beldur piska bat eragiteko balioko du. Hala ere, trafiko legeak jartzerako orduan, gidarien jarrera ez ezik, errepideen egoera, seinalizazioa... kontuan hartu beharko lituzkete.



## M. ANGELES EXPOSITO

**59 urte, etxekoandrea**

Ni gidaria naiz, baina oraindik ez ditut guztiak ezagutzen, gidarioi informazioa falta zaigu. Flexibleagoak izan beharko lirateke. Autobidean trafiko gutxi dagoenean abiadura piska bat azkartzea ez lukete zigortu behar.



***ESKERTZA***

*2002ko urtarrilaren San, 90 urte zituela hil zen*
*PRUDENZIO ETXANIZ ETXEBERRIAren sendiak,*
*bihotzez ESKERTZEN ditu jasotako doluminak,*
*hala nola hileta elizkizunetara agertu izana.*



2002-1-25



**ITZIAR RARASHETA**

**Ortopeda**

# NOLAKO ZAPATAK, HALAKO OINAK

O inaren mugimendua aldatu egiten da oinez ibiltzerakoan edo korrika egitean:

Terrenoaren arabera.

c2. Gizonezko, emakume edo umearen mugimendua ezberdina da.

Horiek kontuan hartu behar dira oinetakoak egiterako orduan. Izan ere, oinaren mugimendu naturalak ez dira oztopatu behar, bestela Iesioak eragin ditzakete.



**Oinetakoak diseinatzean kontuan hartu beharrekoak:**

na> Takoien altuera: Takoi "erdi altuak" erabiltzeak oinaren eta hankaren postura behartzeaz gain, bizkar hezurra ere mintzen du.

Bestalde, oinaren pisua behatzetan kontzentratzen da.

Latex-eko materialen erabilera: Muskuluak ez nekatzeko, batez ere denbora Iuzez tente egon behar bagara.

c*) Larru gogorrak, baina era berean moldakorrak erabili.

Horma egokiak plantilak jartzeko.

Horma bereziak oin deformeentzat.

*. Egungo modarekin bat datorren oinetakoa eta erabiltzailearen gustukoa.

**Oinetako txiklak**

Behar duguna baino zapata txikiagoa jantziz gero, odol-zirkulazioa oztopatuko genuke. Beraz, puntan eta orpoan milimetro batzuk libre uztea komeni da. Zapaten diseinatzaileek ez ezik, norberak ere kontuan hartu behar du oinetako zenbat eta erosoagoak izan, orduan eta hobeto zaintzen direla oinak.

**Osasunari buruzko kezkaren bat argitu nahi baduzu, deitu BARRENeko 943 74 41 12ra**





## Osasun txokua

### MASMISTAK

**Victoria Iraegi**
P.M. Urruzuno, 31 • Tel: **943 74 07 70**
Egunero: 10:30-13:00 / 15:00-19:00

### MEDIKUNTZA ALTERNATIBOAK

**Kemen** Belardenda
(Medikuntza naturala, F. de Bach, masaia, makrobiotika, ycga)
San Bartolome, 25 • Tel: **943 74 40 31**
Egunero: 9:00-13:00 / 16:30-20:00

**Surya** Belardenda
(Osasun naturalaren zure zentroa Elgoibarren. Informa zaitez)
San Frantzisko, 23 • Tel: **943 74 25 34**
Egunero: 9:00-13:00 / 16:30-20:00

### OPTIKAK

**Ikus** Optiko-optornetrista
San Bartolome, 10 • Tel: **943 74 37 34**
Egunero: 9:30-13:00 / 16:30-20:00

Uzuri
(optometria, tonometria, kontaktologia, audiometria)
San Frantzisko, 21 • Tel: **943 74 03 59**
Egunero: 9:30-13:00 / 16:30-20:00

### ORTOPEDIAK

**Itziar Sarasketa**
San Frantzisko, 12 • Tel: **943 74 35 62**
Egunero: 9:30-13:00 / 17:00-20:00

### PODOLOGOAK

**Ibiltzen**
Ubitarte, 11 • Tel: **943 74 36 56**
Egunero: 10:00-13:30 / 15:00-19:30

**Iñaki Rivero**
San Bartolome, 28 • Tel: **943 74 32 90**
Ostegunak: 9:00-12:00 / 15:00-19:30

**Gida honetan agertu nahi baduzu, deitu 943 74 37 04ra**

## Trafiko lege berria jarri da martxan istripuak eta biktimak gutxitzeko eta zirkulazioa arintzeko

Joan den urtarrilaren 21az geroztik, indarrean dago Hego Euskal Herriko errepideetan, Bideko Segurtasuneko Lege Berria. Arau berriaren helburua istripuak eta biktimak gutxitzea eta zirkulazioa arintzea da. Berrikuntzarik nabarmenena, bi urtetan 3 falta larri eginez gero, gidariari baimena kenduko diotela da. Berreskuratzeko sentsibilizazio ikastaro bat egin beharko du zigortuak. Bestalde, hemendik aurrera, autoan jantzi erreflektanteren bat eraman beharko da. Gainontzeko berrikuntzak telefono mobiletik hitz egiteari buruzkoak, abiadurari dagozkionak eta haurrak motorrean ibiltzearen ingurukoak dira.

### ARAU4IAUSTEAK

- 2 minututik gorako geldialdiak zebrabideon edo elborrituen gu-nean.
- Txirrindulariak erreflektanterik edo argi homologaturik gabe ibil-tzea.
- 12 urtetik beherakook motozikletan bidaiatzea.

*Larriak*

- Gidatze arduragabea.
- Suteak edo istripuak eragin ditzaketen objetuak errepidera bota-tzea.
- Leku arriskutsuetan, trafikoa oztopatuz gelditzea.
- Argirik edo ikuspenik gabe, edo beste autoak itsutuz gidatzea.
- Telefono mobiletik hitz egitea "manos libres" gabe.

*Oso larriak*

- Abiadura mugak gainditzea: 30 km./h. herri barruan eta 180 km./h. autobide edo autobian.
- Alkohol edo drogen eraginpean gidatzea.
- Alkoholemia probari uko egitea.
- Gidatze arriskutsua.
- Autaa behar baino gehiago betetzea.
- Konirako norabidean gidatzea.
- Laslerketa ez araukrak.
- Gidatze eta atseden denborak ez betetzea (Transportistok)

### ZIGORRAK

***Arou-hauste oso larriak***
302-602 euroko multa/Gida-baimena kentzea (Gehienez 3 hilalaele)

***Arau-hauste larriak***
301euro arteko diru zigorra/Gida baimena kentzea (Egun bat eta hibbete bat artean)

**Arau *hauste arinak***
91 euro arteko diru zigorra

## Irukurutzeta eta Karakate artean ez dute parke eolikorik eraikiko

### Eusko Jaurlaritzak natur-interesgune izendatu du inguru hau



*Alberto Sudupe, Nerea Zubizarreta, Gillermo Garate eta Bittoriano Gallastegi alkateek prentsaurrekoa eman zuten atzo, eguena.*

Joan den ostegunean, hilaren 24an, Elgoibar, Soraluze, Bergara eta Azkoitiko alkateek prentsaurrekoan adierazi zutenez, Eusko Jaurlaritzak Irukurutzeta eta Karakate artean parke eolikoa ez eraikitzea erabaki du. Parke eolikoa eraikitzeko proiektua aurkeztu zenetik bide luzea egin dute Udaletako ordezkariek, alegazioak aurkeztuz eta bilerak eginez.

Azkenean, beraien helburua lortu dute, gure herrien inguruan parke eolikorik ez eraikitzea. 4 herrietako alkateen izenean, Gillermo Garatek hitz egin zuen: "Energia berriztagarrien alde gaude, baina gehiengoaren adostasunez erabiltzen direnean", esan zuen.

Bestalde, Eusko Jaurlaritzak gai honen inguruan izan duen sentsibilitatea ere azpimarratu zuten. "Gure alegazioak azaltzeko eta eztabaidatzeko aukera eman ziguten, ondorioz, beraien jarrera eskertuz, idatzi bat sinatuko dugu", esan zuen Gillermo Garate, Elgoibarko Alkateak.

### Ondare kulturala

Erabaki hau dela-eta pozik agertu ziren, izan ere, Irukurutzeta eta Karakate arteko mendietan beste proiektu batzuk gauzatzeko asmoa dute Udalek, aisialdirako gune bezala prestatuz. Gainera, ondare kultural garrantzitsu bat mantentzea ere pozgarria izan dela adierazi zuten. izan ere, balore handiko monumentu megalitikoak kontserbatzen dira bertan. "Eusko Jaurlaritzak berak ere natur interesgune izendatu du Irukurutzeta-Karakate ingurua.

Bittoriano Gallastegi Bergarako Alkatearen esanetan, "ondare historikoa izanik, mantendu beharra dago, are gehiago, parke eolikoa eginez gero, energetikoki emaitza esanguratsurik ez zela lortuko jakinda".



## Iker Diegok hartuko du Bea Ansolak lagatako BARRENeko maketatzaile postua

BARREN berritzen ari da piskanaka, langileen aldetik bai, behintzat. Joan den astean esan genizuen publizista berria lanean hasia dela eta maketatzaile berria ere gure artean da dagoeneko. Bea Ansolak 3 urte pasa egin ditu aldizkariari itxura ematen eta orain Iker Diegok beteko du lan hori. Testuak eta argazkiak zuek modu egokian irakur ditzazuen, ahalik eta itxurosoen jartzen saiatuko da hemendik aurrera Iker. Zorte ona opa diogu Ikerri lan berri honetan eta baita Beari ere .

## Bi asteburutan egin dira San Anton jaietako ekitaldiak

San Anton Eguna ostegunean izanik, jai-zubia egin zuten herriko hainbat lantokitan eta izan zen kanpora joateko aprobetxatu zuenik. Haia ere, herriko bigarren zaindariaren omenez, ekitaldiak antolatu zituzten. Urtarrilaren l lko antzerki saioarekin hasi ziren jaiak eta urtarrilaren 20an, "Errekamari" antzerkiarekin bukatu. Tartean erakusketa filatelikoa, pilota txapelketa, haur parkea, Ertzantzaren musika bandaren kontzertua, pailazoak eta erraldoi eta buruhandiak izan dira. Beraz, eguraldia lagun, San Antonak giro onean ospatu dira.



Euskara ikaste o hamaika bide omen




elgoibarko atheuskaltegia

Maila guztiak

411 EGA

401 h Irakaskuntzako 1. eta 2. perfila, eta HBLEM

Izena emateko epea: otsailaren 15era arte.

Ikasle, guraso eta langabetuek
MATRIKULA ERDIA
(Udalaren laguntzaz)

aek

Plaza txikia, 3 - Tel. 943 74 13 32
elgoibar@aeknet.net • www.aeknet.net

# agenda

Urtarrilak 25. barixakua
19:00 IKASTOLAKO JAIALDIA
Haur eta Lehen Hezkuntzakoen jaraldia
Ikastolako frontoiak

Urtarrilak 27. domekia
9:30 MENDI IRTEERA IKASTOLAREKIN
Urko-Eibar
Irteera: Ikastolatik
Antolatzailea: Elgoibarko Ikastola

## Danhorrada doinuak Herri Eskolan



Donostian eta Azpeitian bakarrik ez, Herri Eskolan ere izan zuten Sarriegi maisuak sortutako danbor doinuez gozatzeko aukera. Pasa den barixakuan, hilaren 18an, 150 haur atera ziren Herri Eskolako jolastokira, sukaldari jantzia soinean eta danborra altzoan zutela. Bi aste lehenago hasi zituztela entsaioak aipatu ziguten eta nabari zen. 2 urtetik bigarren mailara bitarteko ikasleek hartu zuten parte danborradan eta gurasoek atera zituzten argazki kopuruari kasu eginez gero, azken hauek ere primeran pasa zuten.



## DBH2ko Ikastolako nesken eskuhald taldeak Gipuzkoako Eskolarteko Txapelketan jokatuko du

DBHko 2. mailako Ikastolako neskak Eskolarteko Gipuzkoako Eskubaloi Txapelketa jokatzeko sailkatu dira. Elgoibarren beste talde asko izango dira sailkapena lortu dutenak, baina gutxik lortuko zuten horren modu bikainean. Zenbakiei kasu egitea besterik ez dago. Sei partidu jokatu dituzte eta guztiak irabazi. Finala 32 eta 0 irabazi zuten Ikastolako beste talde baten aurka. Guztira 111 gol sartu dituzte eta 6 bakarrik jaso. Infantil mailan aritzen dira eta 13 urte dituzte taldekideek. MikeI Merino entrenatzaileak nesken eskubaloiak jarraipen gehiago merezi duela aipatzeko eskatu digu eta baita gurasoak Gipuzkoa mailako partiduetara animatzera joateko eskatzeko ere.






KiliBaRRen

ren 25a/1X. urtea/8 1. z

## Aitor Etxeberriaren margoak egon ikusgai Donostiako Vito 021 aretnan

### Oraingo honetan, abstrakzioa izan da protagonista bere koadroetan

Aitor Etxeberria mendarotarrak erakusketa eskaini du Donostiako Vito 021 aretoan. Artista honek, bizitza gustia darama margotzen, baina azkenaldian aldaketa somatu daiteke bere lanetan. Etxeberriaren obra oso interesgarria da, eta poliki-poliki, bere hizkuntza propioa lortzen ari da.



*Sare antzeko konposaketak erakutsi ditu **Etxeberriak***

Oraingo honetan abstrakzioa izan da bere koadroetan protagonista nagusia: egitura laua, linea zuzenekin uztartuz, eta sare antzeko konposaketak ikusi ahal izan ditugu. Hasiera batean, bere margoetan barneratzea zaila bada ere, barruan sartzean bere sinpletasuna ikuslegoari transmititzea lortzen du koadroen bidez.

Pasa den urtea oso ona izan da mendarotarrarentzat. Izan ere, bihotzez egiten den lanak, Iehenago edo beranduago fruituak ematen ditu.

## 7C lagunek harlu zuten parte Gabonetako VII. Ipuin Lehiaketan

Eskualde osoko partaideak izan ziren Gabonetako VII. Ipuin Lehiaketan. Guztira 70 lagunek hartu zuten parte, eta oso maila ona erakutsi zuten denek. Epaimahaikoek esan digutenez, irudimena eta euskal hizkuntzaren joskera hartu zituzten kontuan. Alde horretatik, oso pozik zeuden epahnahailcide,ak. Izan ere, euskal joskera erabat menperatzen dutela erakutsi zuten. Honekin batera, ipuin guztietan erabilitako gaiak oso tristeak zirela aipatu zuten, baina orokorrean, oso gustura gelditu dira aurtengo lehiaketarekin.

1. sarla:
Mirari Egaña
*5=Ine sorgina"*
2. sarla:
Nerea Roteta
*"Aintzinako istorioa"*

**C kategoria**

1, saria:
Ane Palomino
*"Amalerarik gabeko mundutik urrun"*
2. saria:
Yolanda Munin
*"Paradisuan bildu arte"*
Herriko lehena:
Maitane Mendikute
*"Zeru gorriak"*

**B kategoria**

1. saria:
Maialen Olazabal *"Matteminaren zaztada"*
2. sarla: Itziar Arizmendi *"Orainiatik atzerrira"*
**Herriko lehena:**
Maite Olazabal *'Zoerionaren alde ilunak"*

## Udalak Mendaroko argazki zaharren eskaria egin du

Mendaroko Udalak herriko argazki zaharrak bildu nahi ditu erakusketa bat egiteko. Honetarako herritarren kolaborazioa eskatu du. 1970. urtetik gaur arteko edozein argazkik balio du. Mendaroko herriaren garapena biltzen duen erakusketa izango da; bertako ohitura, biztanleak, festalc... bilduz. Argazkiak goizeko 8:00etatik arratsaldeko 15:00ak arte entregatu daitezke udaletxean, edo arratsaldez, 17:30etik 20:00ak arte, liburutegian. Epea urtarrilaren 31n bukatuko da.

## Kilimonek Zestoa hartuko du etxean

Kilimonek Zestoaren kontra jokatuko du datorren jardunaldian. Ligalco 2. buelta hasi da, eta mendarotarrek sailkapeneko azken postuan jarraitzen dute. Iragan astean Ondarruko "Aurrera"ren kontra 3-1 galdu zuten. Beraz, zulotik atera ahal izateko, aste honetan garaipena lortzea ezinbestekoa da, 1. bueltan, norgehiagoka bakarra irabazi dute, eta 6 puntu baino ez dituzte lortu. Kilimonek badu oraindik kategoria mantentzeko aukerarik, baina lehen bailehen hasi beharra dauka partiduak irabazten.

## Udalak ikastaro desberdinak antolatu ditu

Otsailaren 4tik hasita, Udalak hainbat ikastaro eskainiko ditu: Eskulanak eta dekorazioa, marrazketa tailerra, dantza ikastaroak eta frontenisa. Azken hau, Goñati frontoian izango da, beste guztiak, beniz, udaletxe zaharrean. Matriku1aren prezioa 30 eurotakoa da, eta hilean ordaindu beharrekoa 6 euro dira. Interesatuek, Morroskito, Ormola edo udaletxean bertan eman dezakete izena. Informazio gehiago nahi izanez gero, udaletxean eskatu daiteke, otizina orduetan.

KiliBaRRen Kotaboratzailea: Ainhaa Andonegi. Mendaroko Udalarer dirulaguntzarekin argitaratua.

# Santa Agedaren izenean dbful

## Aurtengoan Musika Eskola berriarentzat izarga drilltua

*Boserritar janfzia tisafu, eztarria prestatu, eta makila topatzen hasi beharra dago, Santa Ageda Eguna berehala baitator. Eztcrrriko minak aide* bafera *uiziz, ofsaiitaren 2an Santa Agedarekin daukate zita mendarotarrek. Aspaiditik datorren tradizioa da hau, eta aurtengoan ere, ohrko kantu zaharren doinu artean, diru eske aterako dira mendarotarrak. Baserriz-baserriz, kalez-kale, egun osoa pasatuko dute kantu-kantari. Egun gogorra izaten da, baina ilusŕoz beterik daudela adlerazi digu Florentino Larrariagak nor da?.*



Ez daude oso aberats diruz, ezta ere oinetakoz, baina eztarriz sano dabiltza, eta ondo baino hobeto erakutsiko digute. Aspaldiko tradizioari jarraituz, mendarotarrak gutxien daukaten horientzat abestuko dute. Aurtengoan, sortu berri den Musika Eskolarentzat izango da dirua.

Ohiturak tradizio

Duela 30 urte inguru, jende ugari ibilizen zen Santa Eskean Mendaron, baina gero utzi egin zuten. Santa Ageda bezperan ateratzen ziren beti, nahiz eta asteko eguna izan. Jendeak hurrengo egunean lanera joan beharra izaten zuen, baina ez zion ardura. Florentino Larrañaga antolatzailearen hitzetan, "gazteak ginen, sasoi betean geunden, eta parranda egin arren, hurrengo egunean orduko joaten ginen lanera". HaIa ere, urteak pasa ahala, jendea nekatu egin zen, eta Santa Eskean ateratzeari utzi egin zitzaion.

Ohiturak tradizio bilakatzen dira, eta tradizioak mantendu egin behar dira. Honela, herriko dantza talde batek dirua behar zuela-eta, berriro ekin zioten Santa Eskeari. Duela hamar urte inguru, lagun talde bat elkartu, eta gutxi ziren arren, bazter guztiak piztu zituzten kantuz. Dirutza handia lortu zuten, baita dantza taldea aurrera ateratzea ere. Esan beharra dago, gaur egun ez direla Santa Ageda bezperan ateratzen. Aste bukaera aprobetxatzen dute, eta beti larunbatean ateratzen dira. Garai batean, hori oso gaizki ikusia zegoen. Otsailaren 4an abesten zen bakarrik, eta egun horretan abestea posible ez bazen, ez zen abesten. Inguruko herriak, larunbatean kantatzen hasi zirenez, mendarotarrek ere, gauza bera egin zuten.

**Duela 30 urte jende ugari ate Santa Eskean. ein zitzaion.**

**Gaur egun, ez Ageda bezpera ateratzen, asli haizik. Garai 111 oso gaizki ikusi**



*Egaña*

Baserriz- baserri otsailaren 2an

Mendaro herri txikia da, baina baserri ugari ditu, eta Santa Eskea guztietatik pasatzen da. Trikitilariak eta ko-

**FLORENTINO LARRAÑAGA, Santa Eskeko antolatzailea**

# "Egun ederra pasatzen dugu Santa Eskean ateratzen garenok"



**- Noiztik ateratzen zarete Santa Eskean?**
Dagoeneko izango dira hamar bat urte. Aspaldi batean ere ateratzen ziren kantura. Ni oraindik umea nintzen, baina gogoratzen dut baserrira etortzen zirela Santa Eskean. Noiz etorriko zain egoten ginen, eta oso pozik hartzen genituen. Gero jendeak utzi egin zion, eta denbora askoan ez da inor ibili Santa Eskean.

**- Zer dela eta hasi zineten berriro?**
Herriko dantza talde batek dirua behar zuen. Ez zeukaten mantentzeko adina diru, eta jantzi berriak erosi behar zituzten. Santa Eskearen ideia bururatu zitzaigun, eta horrela hasi ginen berriro.

**Nola banatzen duzue dirua?**
Nonnalean herriko talde desberdinek eskatzen dute dirua. Gero, batzen denaren arabera, banatu egiten da. Aurten Musika Eskola berriarentzat izango da dirua. Musika eskola aurten jarri da martxan, eta instrumentu berriak erosteko dirua behar dute. Gainera, beste inork ez digu eskatu. Beraz, diru guztia beraientzat izango da.

**Zenbat ateratzen zarete kantura?**
Hasiera batean gutxi ateratzen ginen, baina urteak aurrera joan ahala, gero eta gehiago animatzen dira. Mendaron bi talde desberdin egiten dira, eta talde bakoitzean 16 lagun inguru ibiltzen gara. Lehen emakumerik ez zen etortzen, baina azken urteotan gutxi batzuk etortzen dira, eta gazte jendea ere, gero eta gehiago anirnatzen da. Talde polita osatzen dugu, eta egun ederra pasatzen dugu Santa Eskean ibiltzen garenok.

**- Eztarritik ondo ibiltzea ezinbestekoa izango da, ezta?**
Komeni da bai eztarritik sano ibiltzea. Egun luzea izaten da. Goizean goiz hasi, eta iluntzean amaitzen dugu. Mendaro herri txikia da, baina baserri asko daude, eta denetatik pasatzen gara.

**- Zein ibilbide egiten duzue?**
Talde bakoitzak bere ibilbidea egiten du. Talde bakarrak ezingo luke dena egin. Gure taldea Arraizta baserrian hasten da. Sahatzu bailara egin ostean, Plaza auzora jaisten gara, eta gero Mendarozabal auzoa egiten dugu. Bazkal ostean, Goikoetxe baserritik, Ospasera, eta Azpilgoeta auzoa. Beste taldeak Aranerreka bailaran hasten du eguna. Estazio kalea egiten dute ondoren, eta bazkal ostean Etxaran menditik Lizantzu baserrira arteko bidea egiten dute. Azpilgoetan elkartzen gara denok, eta Emeterioneko tabeman amaitzen dugu.

**"%li talde desberdin egiten dira, eta takle bakoitzean 18 lagun inguru ibiltzen gara".**

**- Nola kantatzen duzue?**
Talde bakoitzak bere trikitilari eta koplariak izaten ditu. Koplariak baseniko kide bakoitzari botatzen dio bertsoa, eta beste guztiok estribiloa egiten dugu. Zenbat eta jende gehiagok abestu, hobe izaten da.

**- Zer moduz hartzen zaltuztete baserrietan?**
Oso ondo. Tratua ezinhobea da. Gure zain egoten dira, eta diru asko etnaten digute. Baserri batzutan gazta edo bestelako janaririk ere jaso izan dugu. Ka1ean ere ondo hartzen gaituzte denek, baina baserrietako tratua desberdina da.


Egaña

)laria hasten dira kantuan. Baserriko ddealc atarira ateratzen dira, eta ko-)lariak bertso bana eskaintzen die. Ondoren, kantu eta umore artean, dirua eskatzen zaie. Florentino Larraflagak esan digunez, "jendea oso ondo portatzen da gurekin. Ilusio handiz hartzen gaituzte, eta diru asko )iltzen dugu". Aintzina, baserriz-baierri aritzen zirenean, urte horretan ;enitartekoren bat hil bazen, desberlin abesteko ohitura zegoen. "Errosarioa edo Salbea abesten zen. Orain ez da horrelakorik egiten. Batzutan, hildakoren bat gogoratzeko kantu bereziren bat eskatzen digute, baina lehen baino askoz gutxiago", Isan digu Florentino Larrañagak.

guru
allen zen
ero utzi

Santa
luruan
ean hau
a zegoen.

VIendarotarrak eztarria prest daukae beraz, eta datorren otsailaren 2an, ibestiak dion moduan, beren bideko aguna hartuz, bazter guztiak poztuco dituzte kantuz.



Hilabete honetako erretratu zaharra **Marciano Santamartak** laga digu. 1970. hamarkadakoa da, "playeroen" txapelketan ateratakoa.
Hauek dira bertan agertzen direnak. Tente, ezkerretik eskumara: **Jesus Alvillo, Tinin, Luis Rodriguez, Roke Arriola, ezezaguna (Arruakoa)** eta **Manolo Jurado.**
Makurtuta: **Jose Luis Urbieta, ezezaguna (Arruakoa), Pedro Mendikute, Jose Mari Garate "Animarte"** eta **ezezaguna (Arruakoa),**

7inwil,1110

# infor rri a zi oci

## TELEFONOAK

**OSASUNA**

Larrialdiak ............ 112
Anbulatorioa ............ 943 03 26 10
Planning-a ............ 943 74 29 50
Alkoholiko Anonimoak ............ 943 74 03 85
D Y.A (anbulantzia) ............ 943 46 46 22
Gurutze Gorria ............ 943 74 38 64
Mendaroko Ospitalea ............ 943 03 28 00
Odol Emaileak ............ 943 74 39 36

**GARRAIOAK**

Eusko Trenbideak ............ 902 54 32 10
PESA (Eibar) ............ 902 10 12 10
Taxi geltokia ............ 943 74 08 98

**UDALA**

Udaletxea ............ 943 74 10 50
Euskara Zerbitzua ............ 943 74 43 66
Ongizate zerbitzua ............ 943 74 10 08
Kultura Zerbitzua ............ 943 74 21 58
GIG (Gaztelnlormazio Gunea) ............ 943 74 14 61
Udaltzaingoa ............ 943 74 13 94
Udal Kirol Patronatua ............ 943 74 44 15
Mendaroko Udala ............ 943 75 61 00

**BESTELAKOAK**

Elgoibarko Izarra ............ 943 74 16 26
Kiroldegia ............ 943 74 44 15
Kontsumo Bulegoa ............ 943 74 30 88
Liburutegia ............ 943 74 35 25
Musika Eskola ............ 943 74 21 45
Mintxeta ............ 943 74 43 15
Parrokia ............ 943 74 08 42
Postetxea ............ 943 74 15 47
Gaztetxea ............ 943 74 35 72

**ADINEKOEN ETXEAK**

San Lazaro Egoitza ............ 943 74 02 96
Zaharren Biltokla ............ 943 74 05 26
Eguneko Zentroa ............ 943 74 45 65

**IKASTETXEAK**

Haur Eskola ............ 943 74 21 41
HHI (EPA) ............ 943 74 08 80
Herri Eskola ............ 943 74 08 79
I.M.H ............ 943 74 41 32
Institutua
Arreiturre ............ 943 74 80 19
Ezenarro (Meka) ............ 943 74 80 19
Ikastola ............ 943 74 44 41
Pilar Ikastetxea ............ 943 74 13 31

**KOMUNIKABIDEAK**

BARREN ............ 943 74 41 12
El Diario Vasco ............ 943 74 40 73
El Correo Español ............ 943 74 10 82
Zazpiki irratia ............ 943 74 34 74
Eg unkaria ............ 943 30 02 22
Gara ............ 943 31 69 99

## Farmazia - okindegia

| EGUNEZ | GAUEZ |
|---|---|
| 26 Etxeberria (Errosario koleori) | Ibañez |
| 27 Ibañez | Ibañez |
| 28 Bidasolo | Bidasolo |
| 29 Etxeberria (Santo Ana kaleon) | Etxeberria |
| 30 Fernandez | Fernandez |
| 31 Yudego | Yudego |
| 1 Zabaleta | Zabaleta |

**FARMAZIAK**

IBAÑEZ, Rekalde, 1 Soraluze.
Tel: 943 75 16 38
FERNANDEZ,
Herriko enparantza 4, Garagorza.
Tel: 943 75 61 42
ZAMIETA, Kalebarren, 9 Soraluze.
Tel: 943 75 13 84
`eguerciiko 2ak arte

**OKINDEG1A**

27 igandea Ibarrenea

## Eusko Tren

TIZEN A.TC

DONOSTIA-BILBO
Egunero
Durlostia,smARA 5.45 06.45... 20.45
Ell,•oibar 07.02 08.02.. 22.02
• jaiegunetan -15ean hasiko dra eta orrhero egongo dira

BILBO-DONOSTIA
Egunero
Billx) 06:1/9 20.94)
Elgoibar 07.23 08.23... 21.23
* lategunetan 8.00etan hasiko dira eta (Irduern egona dio

## Eusko Bre[

ALITORINAK

MENDARO.ELGO1BAR
Egunero
Mendaro 075U 08.50... 21.50

ELGOIBAR-MENDARO
Astegunetan
Elgoibar 07.25 08.25 10.25., 21.25

Jaiegunetan
Eigoibar 08.25 09.25 10.25., 21.25

## PES,AITTOBUSAK

**LARUNBAT GAUA**

EILAR-ONDARROA

| | | | | |
|---|---|---|---|---|
| Eibar | 00.30 | 023U | 04.30 | 06.30 |
| Elgoibar | 00.40 | 02.40 | 04.40 | 06.40 |
| Deba | 00.50 | 02.50 | 0-1.50 | 06.60 |
| Mutaku | 00.55 | 02.55 | 04.55 | 06.55 |
| Ondarrua | 01.05 | 03.05 | 05.05 | 07.05 |

ONDARROA-EIBAR

| | | | | |
|---|---|---|---|---|
| Ondarma | 23.30 | 01-30 | 03.30 | 05.30 |
| Mutriku | 23.40 | 01..10 | 03.40 | 05.40 |
| Debn | 23.45 | 01.45 | 03,45 | 05. 45 |
| Elwillar | 23.55 | 01.55 | 03.55 | 05.55 |
| Eibar | 00.05 | 02.(15 | 04.05 | 06.05 |

*Autobusetako informazioa lortzeko deitu Eibarko informazio bulegora. Tel. 902 101 210.*


**Iriondo** TABERNA

Astegunetan 7:00etan irekitzen dugu
eta asteburuetan 9:00etan

Pedro Muguruza, 2 - Tel: 943 74 00 15





)NTURAK
*PEDRO PEREZ BERISTAIN*
Xixilion. 2 . 3.sotoa s- 943 74 36 52 - 74 27 89
KOMUNITATEAK ETA FATXADAK - BERRIZTATZEAK - PINTAKETA

# San Bizente Egunean ikusi ahal izan zen lehen aktia. San Rokeko ermitako margolana

## Santuaren eguna eta elizako berrikuntza lanen amaiera ospatzeko, Juan Maria Uriarte gotzainak eman zuen meza

Urtarrilaren 22an, San Bizente egunez, meza izan zen San Rokeko ermitan. Urtean oso elizkizun gutxi izan ohi da bailarako baselizan. Beraz, auzoko jende asko inguratu zen bertara. Aurtengoan gainera, santuaren omenezko eguna ospatzeaz gain, elizaren berritze lanen amaiera ere ospatu zuten. Izan ere, iaz hainbat berrikuntza lan egin zituzten San Roke bailarako ermitan . Besteak beste, teilatua, lurra eta hormak konpondu zituzten.





*Ezkerrean, meza santuaren une bat.*
*Eskuman altarean ikus daitekeen margolanaren zati bat.*

**Margolana**

Txukun itxuratu ostean, hainbat margolanekin apaindu dituzte paretak. Arrate Osoro eibartarrak aldarearen atzeko partean mural bat margotu du. Bertan, ezker aldean,baserritarrak irudikatu ditu santuari eskaintza bat egiten San Rokeko ermita atzean dutela. Eskuman, Elgoibar herria agertzen da, eta goiko zatian, altarearen alde banatara, San Roke eta San Bizenteren irudiak margotu ditu.

**Gotzainaren bisita**

Juan Maria Uriarte gotzainaren bisita izan zen ospakizunaren berezita sunetako bat . Berak eskaini zuen elizkizuna, Don Benantzio parrokoaren eta Luis Gomez apaizaren laguntzaz. Meza aurretik prozesioa izan zen eta meza ostean, berriz, salda eta txorizoa banatu zituzten. Iluntzean bailarako hainbat lagunek afaria egin zuten San Bizente eguna ospatzeko.

Hemendik aurrera San Roke bailarara gerturatzen denak, ermita zabalik badago behintzat, margolanak ikusi ahal izango ditu eta baita auzotarren lanari eta gogoari esker egindako lana ere.

# "El uno y el otro" antzeziana taularatuko dute otsailaren lean, harixakuan, Herriko Antzokian

Hilabetero bezala, otsallean ere antzerki saioa izango da Herriko Antzokian. Udaleko Kultura Sailak eta Taupada Antzerki Taldeak antolatuta, "El uno y el otro" lana eskainiko dute "Traspasos Kultur" eta "K. Audiovisuales" taldeek. Mikel Gomez de Seguraren zuzendaritzapean, Adolfo Fernandez eta Rafael Martin aktoreek, Jaime Romoren lana taularatuko dute. Batak irabazlearen papera egingo




du, arrakastarekin arriskatzea gustuko du. Bestea, aldiz, pertsona arrunta izango da, egunerokotasunaren itzalpean bizi dena. Bien arteko kontrastea izango da antzerkiaren muina. Otsailaren lean izango da emanaldia gaueko 22:15ean, Herriko Antzokian. Bestalde, otsailaren 3an, Bernardo Atxagaren lanean oinarritutako "Bambulo" obra izango da ikusgai.




INIGO ARANBARRI. INENDIZALEA

# "Urtezahar gaba Aconcaguan pasa naban 5.500 metrora"

■ **Argentinan pasa zenituen Gabona, mendiak igotzen, ezta?**

Bai, Aconcagua (6.956 metro) mendixa ixotzeko asmuakin jun nitzan eta 18 egun pasau nitxuan Argentinako Andietan. Zoritxarrez ez genduan tontorrera igotzerik lortu eta 6.300 metrotan behera jaitsi bihar izan genduan egurakii txarra zala-eta.

• **Non eta nola pasa zenituen Gahon gaua eta Gabonzahar gaua?**

Gabon gaba 3.000 metrotan zauan refujixo batian pasau genduan eta Gabonzahar gaba, berriz, 5.500 metrora nauala. Gabon Egunian refujixuan gaozenez, bi txanpan botila eruan genitxuan, baina 9:30erako ohian gaozen.

• **Bakarrik joan al zinen?**

Ez. Antolatutako espedizio batekin jun nitzan. Bi nafar, bi kataluiniar, gazteiztar bat, errioxar bat eta bi gidak osatzen zaben espediziva.Gidak, Xabier Erro eta Ihaki Izuza, esperientzia handiko mendizaliak dia. Erro, Martin Zabaletan espedizivan egon zan, hau da, Everestera igo zaben lehen euskaldunen taldian. Nere preokupazio bakarra mendixan ibiltzia zan, eurak arduratzen zian jatekua erostiaz, kanpamenduentzako toki egokixenak bilatziaz... Tipo oso jatorrak tokau jatazen, aurrez ezagutzen ez nitxuan arren.

> "18 egun pasau nitxuan Argentinako Andietan. Zoritxarrez, ez genduan tontorrera igotzerik lortu eta 8.300 metrora ailegau ginan"

• **Nolako mendia da Aconcagua?**

Mendi sikua da, ixa ez dao humedaderik. Horren mendi altua izan arren, goixan ez daka elur asko, haiziak dana garbitzen dau-eta. Berez ez da igotzeko zaila, altura da zailtasun bakarra eta goixan dakan haize leku bat. Hotzakin ere kontuz ibili bihar da. Momentu batian -28 gradura egon ginan.

• **Mendizale asko ibiltzen da Aconcaguan, ezta?**

Bai, mendizalez nahiko saturauta dao. Kanpamendu batian denda pilua ikusten dia. Aldameneko mendixak piska bat txikixauak izan arren, inor ez da juten eta oso salbajiak dia. Gutxienez, nahiko garbi zauan. Parke naturalian sartzen zeranian, poltsa bat entregatzen dizue zakarrak botatzeko eta alde eiterakuan eskatu eitxen dabe.

■ **Ba al zenuen esperientziarik altuerako mendietan?**

Alpietan, Pirineuetan eta Dolomitetan ibilitxakua naiz, baina altura haundiko espedizid bat zelakua dan jakiteko gogua nakan.

• **Eta nola moldatu zara?**

Altura haundixetan kostau eitxen da arnasia hartzia eta mantso-mantso ibili bihar da. Aldimatatzeko 15 egun bakarrik euki genitxuan eta beste aste bat biharrezkua dala uste dot.

• **Izan al zenuen astirik Argentinak bizi duen krisi egoeraz jabetzeko?**

Polizia asko ikusten zian dendetan-eta, baitxa jende ilara haundixak banketxietan dirua ateratzen ere. Bestela, telebistak emandako istilurik ez jakun ikustia tokau.

BOuTIQUE DEL PAN
Enpanadak Enbutidoak
Baserriko ogia Bolleria
Bartolome, 6 / B. Ezenarro, 1 71 943 74 33 92

0110, 4 Cit 1144 C utva.
Oiaso industrialdea. Olasope, 66-A
Tel.-Faxa: 943 74 42 54 - 20870 ELGOIBAR
MEKANIZATUEN TAILERRA

LIX. NAZIOARTEKO JUAN MUGERZA KROSA

# Abraham Chebiik, bigarren urtez jarraiaij, garaipena lortu zuen

## Mintxeta Atletismo Taldeak antolatutako estreinako krosak kirol eta ikusle arrakasta lortu zuen

Eguraldi zoragarria tagun, ikusle mordoa inguratu zen Mintxetara San Sebastian Egunean momentuko atletarik onenak lehian ikustera. Chebii eta Kamathi kenyarrak eta Lebed ukraniarra ziren 59. Mugerza Krosa irabazteko faborito nagusiak, eta aurreikuspenak betez, ikuskizun eta lehia aparta eskaini zuten. Guztien gainetik Abraham Chebii, 22 urteko korrikalari gaztea nabarmendu zen; momentuko atletarik indartsuena dela eta etorkizunean zeresan handia eman dezakeela frogatu zuen kenyarrak. Iaz, Paul Tergat handia garaitzea lortu bazuen, aurten Kamathi herrikidea hartu du mendean, 10.000 metroko Munduko Txapelduna, alegia, Chebiik 31:53 denbora behar izan zuen, Kamathik 31:57 eta Lebed ukraniarrak 32:00. Laugarren sailkatua irabazlearengandik ia minutu batera sartu zen helmugan.

**Anne Jelagat garaile nesketan**

Nesken lasterketako irabazlea esprinean erabaki zen. Anne Jelagat kenyarra izan zen garailea (22:05). Bigarren, Alessandra Aguilar galiziarra sailkatu zen (22:07) eta hirugarren, Iris Fuentes-Pila (22:11).

**2.000 ikusle**

Mintxeta Atletismo Taldekoak oso gustura daude aurtengo krosak izan duen maila eta harrerarekin, "2.000 ikusle pasatxo izan genitxun eta lasterketa oso ondo irten zan", aipatu digu Anton Azpiazu, presidenteak. Horrez gain, proba antolatzen lagundu duten guztiak lerro hauen bidez eskertzeko eskatu digu.







*Ezkerreko argazkian, Chebii irabazlearen helmugaratzea. Eskuinean, gaztetxoen lasterketa baten irteera.*

## Elgaibartarren sailkapena

| | | denbora | maila |
|---|---|---|---|
| Naia Abad | 5.postua | 5:57 | Aleb nesk. |
| Unai Cabo | 1. postua | 6:41 | Aleb mut. |
| Lara Urain | 8. postua | 8:02 | Inf. Nesk. |
| Ailor Arrillaga | 2. postua | 9:30 | int. mut. |
| Nerea Zubiaurre | 5. postua | 9:48 | Kad. nesk. |
| Antton Alberdi | 4. postua | 20:54 | Kad. mut. |
| Jese Jurade | 20. postua | 25:27 | Junior mut. |

n <=4•1 JOSE Avituij'al (Txema)
-Mota guztietako pintura eta enpapelatuak.
Zoluak, moketak, sintasola, kortxoa, etab. jartzen dugu
San Bartolome, 28-1 ezk • Tel: 943 74 12 55 • Mobila: 929 44 23 14

AnduIstegul
Sanyfer
ZERAMIKAK ETA ETXERAKO TRESNERIA
Olase industrialdea
thasope, 5 • 20870 - ELGOJBArt
Tel: 943 74 33 44 - 74 23 71
Faxa: 943 74 37 11

2002-1-25

# Muguruza eta Navarro bikoteak irabazi du San Anton Pilota Txapelketa

## Promesetan, Mendizabal eta Oteizak lortu zuten txapela




*Erretratuan, San Anton Pilota Txapelketako irabazleak*

Elgoibarkoa baino Plaentxiko frontoia zirudien pasa den barixakuan (hilak 18) Ikastolako frontoiak, San Anton Pilota Txapelketako finaletan. Izan ere, aurtengo finaletara bi pilotari plaentxiar iritsi dira, bata promesa mailan eta bestea, nagusietan. Lehen partiduan Jauregi plaentxiarrak ezin izan zien zaleei garaipena eskaini eta Azpirozekin bikote eginez, Mendizabal eta Oteizaren aurka 22 eta 8 galdu zuten. Nagusien mailako partiduarekin iritsi zen plaentxiarren jaia eta gozamena. Bertan, Muguruza plaentxiarrak eta Navarrok, 22 eta 14 irabazi zieten Sorarraini eta Iriarteri. Gainera, Muguruza aukeratu zuten finaleko pilotari onena. Beste behingoz, afizionatu mailako pilotaririk onenak gertutik ikusteko aukera eskaini die San Anton Txapelketak herriko zaletuei. Ikastolako frontoitik pasa diren pilotari bat baino gehiago pasako da ziur asko profesionaletara. 11 urtetan txapelketatik pasa diren pilotarien zerrenda ikustea besterik ez dago: Goñi II, Goñi III, Patxi Ruiz, Zearra, Esain, Berraondo,

# Markel Bergara elgoibartarra 15 urtez azpiko Espainiako Futbol Selekzioan jokatzeko probak egiten izan da Madrilen



MarkeI Bergara, 15 urteko futbol jokalari elgoibartarra, 15 urtez azpiko Espainiako Selekzioan jokatzeko probak egiten izan da Madrilen, 3 egunez. Markelek Realeko ohorezko jubenil mailan jokatzen du, adinez oraindik kadetea den arren. Aipatu digunez, Espainia guztiko 72 jokalari izan dira probak egiten eta hauetatik 24 aukeratuko dituzte Espainiako Selekzioa osatzeko. Bestalde, Euskadiko Selekzioaren deialdietan ohikoa dugu Markel eta Espainiako Txapelketa ari da jokatzen uneotan. Lehen bi partiduak irabazi dituztela azaldu digu, bata Gaztela-Leoiko taldearen aurka eta bestea, Ceutakoaren aurka.

## EMA1TZAK

### Futbola

Bergara 1- Haundi **1 (Pret.)**
Pedrusko **3-** Hamaikak Bat 1 **(1. erreg.)**
**Bergara °B" 4** - Elgoibar 1 **(1. erreg.)**
Elgoibar - Amaikak Bat 3 **(Jub.)**
**Elgoibar 8** - Billabona **1 (Kad.)**
Elgoibar 0 - Bergara **D (Int.)**
**Bergara 4 Elgoibar 6 (Neskak)**

### Esku pilota

**San Anton Txapelketa**
Azpiroz/Jauregi 8 - Mendizabal/Oteiza **22 (Promesak)**
Muguruza/Navarro **22** - SorarrainlIriarte **14 (Nagusiak)**
**Gipuzkoako Txapelketa**
Lagunak (2) 10 - Azkoitiako (2) **18**
**Lagunak (1)10** - Azkoitiako (1)18
**Euskal Herriko Llga**
Galindez/Uriarte **21** (Usansolo) - Goenaga/friondo **22**

### Eskubaloia

Aloña-Mendi **26** - Pagoaga Elg. **9 (Kad. nesk.)**
Aloña-Mendi **16 - Unceta Elg. 18 (Jub. nesk.)**
Tecnomeca Elg. 15 - Escolapios **24 (Kad, mut.)**
**Pneumax Elg. 21** - Escolapios **20 (Jub. mut.)**
Gaur Elg. **28-** Arrasate **12 (Jub. mut.)**
**Ehariatdea 12 - I.M.S. Elg. 19 (Senior nesk.)**
El Pilar **32** - Tecnifuelle Elg. **32 (Senior mul.)**

### Areto Futbola

Eskualdeko **3. Txapelketa**
Kashima Brewers 2- La Kolina 3
Pub Gaberdiko **4** - ZRU 5
Elur F.S. **2** - S.A. 1
Deportes Justo **4** - A mi me gusta... **3**
Drink Team O - Dinamo de Gale 5
Aixa 2 - Castilla-LeOn 2

### Idarraga kafeak 5. saria

**HAUNDIko jokalari erregularrena 00/01**

| **JOKALARIA** | **PUNTUAK** |
|---|---|
| 1-Salaberria | 74 |
| 2-Joseba Igartua | 73 |
| 3-Loren | 45 |
| 4-Ugalde | 44 |
| 5-Navarrete | 42 |
| 6-Leonardo | 37 |
| 7-Elkoro | 31 |
| 8-Txasio | 27 |

## AGENDA

### Futbola, Mintxetan

Zapalua, 26
16:30 Haundi - Aloña-Mendi **(Pret.)**
18:15 Elgoibar - Gazteak **(1. erreg.)**
Domekia, 27
10:30 Elgoibar - Aitzgorri "B' **(Aurre inf,)**
**11:45** Elgoibar - Aitzgorri **(Aurre inf.)**

### Eskubaloia, Kiroldegian

**Barixakua, 25**
**19:30 Pagoaga Elg.** - Zarauz **(Kad.** nesk.)
**Zapatua, 26**
**15:45** I.M.S. Elg. Aloña-Mendi (Senior nesk.)
**17:15** Tecnifuelle Elg. - Arabakan Gure (Senior mut.)
**Domeka, 21**
**9:45 Pagoaga Elg.** - Arrate **(Kad.** nesk.)
11:00 Unceta Elg. - Arrate **(Jub.** nesk.)

### Esku pilota, Ikastolan

Euskal Herriko Liga
Finaferdiak
larunbata, 26
18:00 Lagunak lurreta **(Kad.)**

# agurrall

## ⁹5Mit⁹Frak



• Zorionak **Nora.** Egun ono paso urtarrilaren 25ean, zure 6. urtebete-betetzean. Ionen eta gurasoen partez.



*Zorionak **Iñigo Badiolari, bikren 22an urteak bete zituela**ko. Familiakoen eta bereziki Asier eta Nerearen partez.



• Zorionak **Ibon Goikoetxeari 6** urte bete dituelako. Familiakoen partez muxu handi bar.



♦ Zorionok **Maite De Pablori, urtarrilaren 28an 10 urte bete**ko dituelako. Gurasoen, aitonamonen eta bereziki anaia Josebaren partez.



♦ Zorionak **Daneli** urtarrilaren I7an I I urte bete zituelako. Etxekoen eta 6. mailako lagunen partez.



• Zorionak **Jose Miguel zure 4.** urtebetetzean. **Maitasunez** Elena eta Abdelen partez.



* Zorionak **Urko,** igandean, hilak 27, zure lehenengo urtebetetzea delako. Familiakoen eta bereziki, Itxasoren partez muxu handi bar.

• **Zorionok Leire** urtarrilaren 22an 13 urte bete zituelako. Eskerrik asko merendolarengatik. Pilar Ikostetxeko **DBH** 1 eko lagunak.

• Zorionak Ancertxori, hilaren 25ean 2 urte beteko dituzulako. Iararen partez.

## 431 gazte
ˢ110.11. infOrMaZi0E1

***Elgoibarko Gazte Informazio Gunea***

*Kultur Etxean. Bigarren solairuan. Tel, 943 741 461 Ordutegia: Astelehena-asteartea- osteguna-ostirala: 17:00-20:00 Larunbata: 10:00-14:00*

### BEKAK

**Gaztelaniako elkarrizketarako lagunlzailea**
Hezkuntra eta Kultura Ministerioaren eskutik, filologian lizentziatuentzat gaztelaniako elkarrizketarako laguntzaile plazak, Austria, Belgika, Fantzia, Irlanda, Italia, Erresuma Batua, Alemania eta Zelanda Berriko ikastetkeetarako. Epea: otsailak 18.

**Nazioarteko Batxilergoa**
"Colegios del Mundo Unidos" Fundazioaren eskutik, batxilergoa atzerrian ikasteko 10 beka emango dira. Ingeles maila jakin bat duten gazteei zuzendua. Epea: martxoak 25.

### IKASTAROAK

**Argazkilaritza, dantza eta zurgintza ikastaroa**
Lasarte-Oriako Manuel Lekuona Kultur Etxean, argazkilaritza, dantza eta zur-tailaketa ikastaroa. Epea: martxoak 1.

### LEHIAKETAK

**Kartel lehiaketa**
"Marboaren 8ko Kartel Lehiaketa 2002" Ermuko Aukera Berdinetarako Sailak eta Udal Kontseiluak antolatuta. Gaiak martxoaren 8arekin zerikusia izan behar du. Saria: 601 euru. Epea: otsailak 11.

**Logotipo lehiaketa**
Eratu berria den Hizkuntza Kontseiluaren logotipoa sortzeko lehiaketa. Epea: otsailak 15.

**Ipuin lehiaketa**
Lenako Nazioarteko Ipuin Lehiaketa bertako Udalak antolatuta. Gai librea. Epea: urtarrilak 31.

### LANA

**Disneyland Paris**
Disneyland Pariseko parke tematikorako lanpostu desberclinak: garbiketa, ostalaritza (sukaldea, taberna, gela-zerbitzua, banketeak, mahai-zerbitzua, barra-zerbitzua), harrera, salmenta (dendak) eta atrakzioak (azafatak). 18 eta 30 urte bitartekoentzat. Frantsesa jakitea eskatzen da. Epea: otsailak 15.

**Kiroldegiko tabemalatetcea**
Hernaniko Udal Kiroldegiko taberna-kafetegi-jatetxeko zerbitzua kontratazeko lehiaketa. Epea: urtarrilak 29.

**Kontuhartzaile-diruzaina (tesoreroa)**
Zizur Nagusiko Udalean kontuhartzaile-diruzain bat kontratatzeko oposizio-lehiaketa. Ekonomia Zientzietako, Enpresa Zientzietako edo Zuzenbideko lizentziatu titulua eskatzen da. Epea: otsailak 14.

**Meatze Ingeniari Teknikoa**
Meatze Ingeniari Tekniko bat administrazio-erregimenean eta aldi baterako kontratatzeko deialdia, Nalarroako Foru Erkidegoak antolatuta. Epea: urtarrilak 29.


*EZEZ⁴*
**ileapaindegia**
**Depilazio Elektrikoa**

**Mandiola Egurrak S.L.**
Domingo Arrizabologa
SALEROSKETA
BASOEN MOZKETA





dtiil
Juan Mugerza, 3 u• 943 74 12 56 - (mobila) 609 53 23 83

ROGAMAZ OA



KARNABALAK 2002

BALETAK AFARIA

*Entsalada inistoa*
***
*Bakaikoa tornatearekin eta piperrekin edo eskalope berezia*
***
*Etxeko postrea*
*Kafea eta edariak*

**15 €** *–.500 pui.1*

E44404, te444. t,44,

ToLETXrEl

Pedro Muguruza 8, behea • Tel. 943 74 19 48

# agencia

## 25 BARIXAKUA

**19:00 IKASTOLAKO JAIALDIA**
Egitaraua:lgo mailatik b. mailaraino
Ikastolako frontoian



**22:15 KONTZERTUA**
Taldeak: "Barricada", "Spezial Quest", "Humus"
Gaztetxean
Sarrera: 3 euro
(Aurrez, Elkartasun dendan)



## 27 DOMEKIA

**8:30 MENDI IRTEERA**
Aralarrera, Guardetxetik
Irteera: Plaza Handitik
Antolatzailea: Morkaiko M.T



## 1 BARIXAKUA

**22:15 ANTZERKIA**
"El Uno y el Otro"
Taldea: "Traspasos" konpainia
HetTiko Antzokian

ZINE kluba




## "La espalda del mundo"

**Zuzendaria: Javier Corcuera (Dokumentala)**
3 istorio biltzen ditu dokrunentalak. Lehena, 11 urteko ume peruar bati buruzkoa da. Autobuseko pikatzaile moduan lan egitera behartuta dago familiari diruz laguntzeko. Leyla Zana da bigatTen istorioko protagonista. Pentsatzen zuena esateagatik 15 urteko gartzela zigorra ezani zioten. Bere gaisotasun egmra kaskarra dela-eta, Turkiako gobemuak indultoa eskaini dion arren, preso politiko kurdo eta turkiar guztientzako amnistia orokorra eman ezean, ez du indultorik onartuko. Hirugarren istorioa heriotza zigorrari buruzkoa da. Thomas Miller Texaseko heriotzaren korredorean dago 1986azgeroztik eta bere emtgabetasuna defendatu du.

2002-1-25

## EUSKALTEGIAK

**Matrikula zabalik DEBABEn**

"DEBABE" Udal Euskaltegien Mankomunitateak otsaileko matrikula ireki duela jakinarazten du Izen ematea urtarrilaren 2letik otsailaren 8ra bitartean izango da. Besteak beste, honakoa da eskaintza: Euskalduntzea eta EGA; Hizkuntza eskakizunak administraziorako eta hezkuntzarako; Ikastaro bereziak ikastetxe, lantegi eta guraso taldeentzat. Prezio bereziak izango dira ikasle, langabetu, jubilatu eta guraso taldeentzat. Interesatuak pasa Udal Euskaltegitik (Nafarroa Enparantza, 2) edo deitu telefono honetara: 943 74 27 31.

**Matrikula zabalik AEK-n**

Elgoibarko aek euskaltegiak ikastaro hasieran izan zuen "euskara ikasteko hamaika bide omen daude...aek-n onena" lemari jarraituz, berriro matrikula zabalik du euskara ikasi nahi duen guztientzat maila guztientzat. Baita irakaskuntzan beharrezkoak diren hizkuntz eskakizunak eta EGA behar dutenentzat ere.

Langabetuek eta ikasleek matrikula erdia ordainduko dute, Udalaren laguntza izan dutelako.

Matrikulatu edo informazio gehiago nahi izanez gero, pasatu AEK euskaltegitik; Plaza Txikia, 3 edo deitu 943 74 13 32 telefonora.

## IKASTAROAK

**Nagusilanen ikastaroa**

Nagusilan Elkarteak bertako boluntarioak hezitzeko ikastaroa antolatu du. Jubilatuen Biltokian izango da ikastaroa, urtarrilaren 28tik otsailaren la bitartean. Pedro Bilbatua psikologo eta gerontologoak emango ditu klaseak eta ordutegia 17:00etatik 20:00etara izango da. Honako gai hauek ikutuko dituzte, besteak beste: Komunikazioa eta abilezia sozialak, Alzheimerra, depresioa eta antsietatea.

## ONITURAK

**Etxegina taldearen Santa Eskea**

Santa Eskeko Etxegiña Taldea otsailaren 2an, zapatuan, irtengo da Elgoibarko kaleak kantuz eta doinuz alaitzera. Bolatokiko parketik irtengo dira goizeko 9:00etan. Eguerdiko 14:00ak inguruan arnaituko dute Errosario kaleko Amabirjinari salbea abestuz. Ondoren, Baltasar Elkartean egingo dute bazkaria. Aurrez, bi entsaio egingo dituzte urtarrilaren 29an eta 31n Kultur Etxeko sotoan, 20:00etan. Parte bartu nahi duen edonork entsaioetara agertzea besterik ez du.

# zine

K XR FELDEGIA

ELGOIBAR, Herriko Antzokian
"Spy Game"
25, barixakua: 22:15
26, zapatua: 19:30-22:15
27, domekia: 19:30-22:15
28, astelehena: 22:15
"Manolito Gafotas: Mola serjefe"
27, domekia: 16:30
"La Espalda del Mundo" (Zine Kluba)
31, eguena: 21:30

EIBAR, Unzaga
"Tras la linea enentiga"
25, barixakua: 19:30-7'1:15
26. iapatua: 17:00-19:45-22:30
27, domekia: 17:00-19:45-21:30
28. astelehena:19:311-2 ·):15
29. marlitzenx 19:30-22:15
30, eguattena: 19:30-22:15

"Prineesa por sorpresa"
25, barixakua: 19:30-22:15
26, tapatua:19:30-22:15
27, domekia:19:30-22:15
28. astelehena: 19:311-22:15
29. nuu̅titzena: 19:30-22:15

BERGARA, Novedades
"El señor de los anillos"

26, zapatua: 17:00-22:30
27, domekia: 16:30-19:45
28, astelehena: l 9:30
"El eielo abierto"
31, Eguena: 20:00 Zine Kluba1

. AZKOITI, Baztartxo
5 11
25. barixakua: 22:00
27. domekia: 16:45-19:30-22:15
28, astelehena: 20:00

BARRENek ez du gertatitezkeen emanaldien aldaketen erantzukizunik.



## "Spy Game"

Zuzendaria: Tony Scott.
Antzezleak: Robert Redford, Brad **Pitt, Catherine McCormack.**
Chinako gobernuak Tom "Boy Scout" Bishop (Brad Pitt), CIAko agentea, espioitzagatik epaitu eta heriotzera zigortu du. Ondorio neurrigabeak izan ditzakeen eskandalu diplomatikorik ez sortzeko, CIAk ez du kasuaz ezer jakin nahi. Tom salba dezakeen bakarra Nathan Muir (Robert Redford) da, Tomen irakaslea izandakoa. Aspaldi elkar ikusi gabe egon arren lagun-minak izan ziren eta Nathanek irakatsi zionOik dakien guztia. Orain bere bizia salba dezakeen bakarra da.



Aste honetako erretratua **Ines Gabilondok** laga digu. 1943ko irailaren 12an ateratakoa da, Morkaiko Mendizale Elkartea sortu zenekoa, Moruko buzoiaren inauguraziokoa , hain zuzen ere. San Pedroko pagadian, gustura agertzen da mendizale talde hau, soinu, txistu eta danborrarekin.

Hauek dira erretratuan agertzen direnak:

Zutik, ezkerraldean dagoena: **Jesusa Arakistain (t)**

Taldean, zutik, ezkerretik eskumara: **Julian Uribe (t), Ines Gabilondo, Anakleto Rementeria (t), ezezaguna, Enrike Gil, M. Karmen Zuazubizkar, Jose M. Igartua (t), Miguel Sanchez, Pedro Atristain (t), Dominika Arrillaga, Julian Azkue (t), Pepe Goiartzun, Julian Iriondo, Pakito Muñoz** (1° ) eta **Iñaki Konde (t).** Behean: **ezezaguna, ezezaguna, ezezaguna, Jesus Etura, Asensio Olalde (t), Karmen Lazkano,** Teresa **Arrillaga, Juanita Agirregomezkorta** eta **Antonio Azpiazu (t).**

---



*I. URTEURRENA*
*2001eko urtarrilaren 26an, 79 urte zituela hil zen*
*ELISEBI ARRIETA LIZARRALDEren oroimenez*
*URTEURRENEKO MEZA izango da Parrokian*
*larunbatean, hilak 26, arratsaldeko 19:OOetan.*
*Joango zaretenoi eskerrak aldez aurretik.*





*MEZA*
*2002eko urtarrilaren 12an, 85 urte zituela hil zen*
*DIEGO VARGAS CABRERAren oroimenez*
*MEZA izango da Parrokian larunbatean,*
*hilak 26, arratsaldeko 19:00etan.*
*Joango zaretenoi eskerrak aldez aurretik.*



791 MAICOUL ERREMINTAREN INSTITLITUA

**2002/2003 IKASTURTEA**

San Roke Auzoa, 1
20870 Elgoibar
Ta. 943 74 41 32
F. 943 74 41 53
monika@fmh.es
www.fmh.es



**Makina Erremintaren Institutuak aukera ezin hobea eskaintzen dizu:**

## TXANDAKAKO ENPRESA INGENIARITZA

- **Enpresarekin lanean** garatutako lanbide proiektua.
- **Lan-kontratua** prestakuntzaren lehen egunetik.
- **Emaitza erakargarriak:** tituludun **%100ek lanean** dihardute eta hauetatik %25ek zuzendaritzako ardurak daramatzate.

**URTARRILAREN** 30ean, asteazkenean, bilera informatiboa egingo da prestakuntzaren ezaugarriak eta sarrera baldintzak azaltzeko.

118.30ean Makina Erremintaren Intitutuko (IMHko) instalazioak bisitatuko dira eta 19:00etan bilera informatiboa hasiko da.

IQNet AENOR ER-0033/1 Euskadi

ITUR.AIN & ASOC.
ZERBITZU INMOBILIARIO INTEGRALAK
CONSULTING GROUP

# ELGOIBARKO ERDIGUNEAN

Ireri



- ETXEBIZITZAK
  . 1, 3 eta 4 logela
  . Egongela-jungela Sukuldea
  . 2 bainugelo.



- GARAJE PLAZA ITXIAK
- KOMERTZIORAKO LOKALAK
- KALITATEZKO ERAIKUNTZA
- ORDAINKETARAKO ERRAZTASUNAK

**PROMOZIOA eta SALMENTA Muno, S.A.**
**Trenbidearen Zumardia 13-15 . AZKOITIA**
**Tel. 943 157 007 . 609 473 933**

**INFORMAZIOA Ituraln & Asoc.**
**San Frantzisko, 44 . Tel. 943 748 801**
**Tel. 670 412 073**

# KULTURA




"el uno y ei otro"

**OTSAILAK 1, OSTIRALA**
Gaueko 22:15ean
Herriko Antzokian

Batak arrakastarekin arriskatzea du gustuko, bestea berriz egunerokotasunaren itzalpean bizi den pertsona arrunta da.

## BAMBULO





Bere ustez kontinenteko txakurrik azkarrena denaren abenturak.

NRABANULO"

[ Haurrentzat ]

**OTSAILAK 3, IGANDEA**
Arratsaldeko 16:30ean
Herriko Antzokian

8o-ffal-ab 449ai fAtzth

Kultura

TAUPADA ANTZEZTALDEA

SAREA

Foru Aldundia